



Aisialdia... non? zertarako? norekin?

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK. • TUTORETZA.
- HIZKUNTZA.

HELBURUAK

- Ingurua ezagutzea eta gizarteak berarekin eratutako elkarrekintzak identifikatzea.
- Ingurumen-arazoentzako irtenbideak proposatzeko gaitasuna garatzea.

Zer da zuretzat aisialdia?

Lehendabizikoz, bakarka, erantzun iezaiozu ondoko galdeketari; ondoren, launaka komentatuko dituzue erantzun ezberdinak. Azkenik, guztion artean eztabaidatu.

Denbora libre gehiena leku hauetan igarotzen dut (bat aukeratu):

- Etxean Lagunen edo familiakoen etxean Auzoan edo herrian Auzotik kanpo

Beste aukera batzuk:

Ekintza hauek egin ohi ditut:

- Telebista ikusi Ordenagailua erabili Irakurri Herrian ibili
 Txangoak egin Zinemara edo kontzertuetara joan Kirola egin Tabernetara edo dantzalekuetara joan
 Lagunekin kalean edo parkean egon Beste aukera batzuk:

Aisialdiko ekintzetan normalean... egoten naiz (bat aukeratu):

- Lagunekin Gurasoekin edo anaia-arrebeekin Beste senide batzuekin Bakarrik

Beste aukera batzuk:

Aisialdirako dudan denbora:

- Gehiegizkoa da Egokia da Urria da Gutxiegi da

Aisialdiko ekintzak hobetzeko zerbait falta zait (bat aukeratu):

- Denbora Askatasuna Garraioa Dirua
 Leku egokiak Lagunak Beste aukera batzuk:

Non daude kokaturik aisialdiko lekuak?

Laukote bakoitzak bere lurraldeko Foru Aldundiko webgunetik auzoko edo herriko A-3 tamainako planoan lortuko du. Talde bakoitzak aisialdiko guneen zerrenda idatzi eta planoan kokatu beharko ditu (toki bakoitzean zer egiten den zehaztuz).

Talde bakoitzak besteei bere bilduma aurkeztuko die, eta guztien artean zerrenda osatuko dute.

Ondorioak

- Gune horietan, zeure gustuko jarduerak egiten al dira?
- Aipatu topaturiko hutsuneak.
- Zer egin nahi zenukete bertan?
- Proposamenak bildu eta zuen herriko kultur batzordeari bidali.